



## Herrizaingo Saila

Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritza

## Departamento de Interior

Dirección de Atención de Emergencias y Meteorología



ASTELEHENEAN EGINDAKO IRAGARPENA. 2013ko urtarrilaren 14a. 8:30.

### ASTELEHENA (2013/01/14)

Zerua oso hodeitsu edo estalita egongo da. Zaparrada txiki-ertainak botako ditu eta prezipitazioa ugaria izango da. Kantauri isurialdean oso ugaria izango da prezipitazioa, eta zenbait lekutan zaparradak handiak izateko probabilitatea txikia da. Trumoi-ekaitza izateko eta txingorra egiteko probabilitatea txikia da, bereziki egunaren lehen partean. Goizean goiz elur-kota 700-800 m inguruan egongo da. Elur-mailak gora egingo du pixkanaka, eta egun amaieran 1000-1200 m ingurura egongo da. Ipar-mendebaldeko haize ahul-bizia ibiliko da, bolada gogorrekin eta oso gogor batzuekin kostaldean eta mendi inguruetan. Temperatura maximoetan aldaketarik ez. Mendi inguruetan izotz txikia egiteko probabilitatea txikia da.

Temperaturak (°C)	
	<i>Maximoa</i>
Donostia	9
Bilbao	10
Gasteiz	5
Arrasate	7

### ASTEARTEA (2013/01/15)

Zerua oso hodeitsu edo estalita egongo da. Zaparrada txiki-ertainak botako ditu. Prezipitazioa ugaria izango da, eta kantauri isurialdean oso ugaria, bereziki ekialdean. Elur-kota 1000-1200 m inguruan egongo da, eta gauean 1300-1400 m-ra igoko da. Mendebal/ipar-mendebaldeko haize bizia ibiliko da bolada gogorrekin, eta oso gogorrekin kostaldean eta mendi inguruetan; arratsaldean indarra galduko du. Temperaturan aldaketarik ez. Mendi inguruetan izotz txikia egiteko probabilitatea txikia da.

Temperaturak (°C)		
	<i>Minimoa</i>	<i>Maximoa</i>
Donostia	6	9
Bilbao	7	10
Gasteiz	2	6
Arrasate	5	7

### ASTEAZKENA (2013/01/16)

Zerua oso hodeitsu edo estalita egongo da. Zaparrada txiki-ertainak botako ditu. Prezipitazioa ugaria izango da, eta kantauri isurialdean oso ugaria, bereziki ekialdean. Goizaldean elur-kota 1400-1500 m inguruan egongo da; goizean 1500 m-tik gora igoko da. Mendebal-osagaiko haize bizia ibiliko da bolada gogorrekin, eta oso gogorrekin kostaldean eta mendi inguruetan. Temperatura minimoetan aldaketarik ez. Temperatura maximoak gutxi igoko dira.

### OSTEGUNA (2013/01/17)

Zerua oso hodeitsu edo estalita egongo da. Zaparrada txikiak botako ditu, zenbait lekutan ertainak goizaldean eta kantauri isurialdean. Arratsaldean atertzera egingo du eta hodeitza txikitu egingo da. Elur-kota 1200-1400 m inguruan egongo da. Ipar-osagaiko haize ahul-bizia ibiliko da, bolada gogorrekin kostaldean eta mendi inguruetan; arratsaldean ekialdera edo ipar-ekialdera aldatuko da, eta indarra galduko du. Temperatura gutxi jaitsiko da. Barnealdean izotz txikia egiteko probabilitatea txikia da.